

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: 0770

GAIA: DIRU LAGUNTZA ZUZENA

ESPEDIENTEA: 2024DDI20002

INTERESDUNA: AXTROKI ARKU-TIRO KLUBA

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 2.000,00 € euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du AXTROKI ARKU-TIRO KLUBA-ren alde, 2024. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmeneta eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Kiroldegiko kirol aholkulariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta AXTROKI ARKU-TIRO KLUBA-ren artean egin beharreko hitzarmena .

BIGARRENA.- AXTROKI ARKU-TIRO KLUBA-ri 2.000,00 €-ko dirulaguntza ematea, 2024. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren bosgarren klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren % 60 (1.200 €) ordaintzea hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

LAUGARRENA.- 2.000,00 €-ko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 0300.481.341.30.01 partidari egozte.